**LAZKAOKO UDALA**

IRAGARPENA, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako C.A.F.ek okupatutako gunean Aldaketa Puntuala bere hasieran onetsi dela jakinarazteko dena. 6113

**IBARRAKO UDALA**

IRAGARPENA, Arau Osagarriak behin-behinekoz onartu direla jakinarazteko dena. 6114

**ARRASATEKO UDALA**

IRAGARPENA, (Kobate) 17 Sektorean okupazio aurreko aktak jasotzeko deialdia egiteko dena. 6114

**AYUNTAMIENTO DE LAZKAO**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lazkao, zona ocupada por C.A.F. 6113

**AYUNTAMIENTO DE IBARRA**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de las Normas Complementarias. 6114

**AYUNTAMIENTO DE ARRASATE**

ANUNCIO de convocatoria de levantamiento de las actas de Previa Ocupación en el Sector 17 (Kobate). 6114

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**2188**

AGINDUA, 1995eko maiatzaren 12koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, antolaeraren egitura egokitzeari buruzkoa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa arautzeko den apirilaren 12ko 107/1988 Dekretuaren zazpigarren atalean agintzen denez, Hezkuntza Administraziorako sailburuordearen menpe aurrekontuetarako eta kudeaketa planerako kabinete bat dago zuzen-zuzenean. Administrazio-unitate horren egitekoak izango dira Saileko aurekontuen aurreproiektua egitea, kudeaketa plana kontrolatzea, aurrekontuetako programak gauzatzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea eta aginduzko ekonomia-txostenak ematea.

Bestalde, apirilaren 12ko 107/1988 Dekretuko gehigarrizko xedapenetatik lehenengoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hori garatzeko eta aplikatzeko behar diren arauak emateko, bai eta administrazio-unitate mailako edo beheragoko unitate organikoak batu, sortu eta kentzeko ere. Horretarako, dena den, beharrezkoa izango da aurrekontuetan aurrikusi gabeko gastu-igoerarik ez egotea eta aginduzko txostenak edukitzea.

1995eko maiatzaren 8an, Hezkuntza Administraziorako sailburuordeak Hezkuntza Administraziorako zuzendariari eskuduntza delegatzeari buruzko erabakia hartu zuen. Delegazio hori Saileko aurrekontuen aurreproiektua egiteko ahalmenean datza. Aldaketa horrek, bestalde, ez dakar gastu-igoerarik. Horiek horrela, hau

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**2188**

ORDEN de 12 de mayo de 1995, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación sobre adecuación de la estructura organizativa.

El artículo séptimo del Decreto 107/1988, de 12 de abril, por el que se regula la Estructura Orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, dispone que el Viceconsejero de Administración Educativa cuenta, bajo su dependencia directa, con un Gabinete de Presupuestos y Plan de Gestión. Entre las atribuciones de esta unidad administrativa se encuentran la elaboración material del Anteproyecto de los presupuestos del Departamento, el control del plan de gestión, la ejecución de los programas presupuestarios y la propuesta de medidas correctoras e informes económicos preceptivos.

Por otro lado, la Disposición Adicional Primera del Decreto 107/1988, de 12 de abril, faculta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación para dictar las necesarias normas de desarrollo y aplicación del referido Decreto, así como agrupar, crear y suprimir unidades orgánicas con rango de Unidad Administrativa o inferior, siempre que ello no suponga incremento del gasto que no se encuentre previsto en los presupuestos y previos los informes preceptivos correspondientes.

Habiéndose dictado Resolución de 8 de mayo de 1995, del Viceconsejero de Administración Educativa sobre delegación de competencia en la Directora de Administración Educativa, residiendo ésta en la facultad de elaborar el anteproyecto de presupuestos del Departamento, y no teniendo la referida modificación incremento de gasto,

XEDATU DUT:

*Lehenengoa.*– Hezkuntza Administraziorako Sailordetzatik aurrekontuetarako eta kudeaketa planerako kabinetea kentzea eta lanpostuak, 071051, 071138, 072110 eta 072119 kodeak dituztenak (dagozkien dotazioak), Hezkuntza Administraziorako Zuzendaritzako Aurrekontu eta Ekonomia-Kontrolerako Zerbitzuari atxikitzea. Horren ondorioz, lanpostu horien monografien funtzioak egokitu egin beharko dira.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko maiatzak 12.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
IÑAXIO OLIVERI ALBISU.

DISPONGO:

*Primero.*– Suprimir de la Viceconsejería de Administración Educativa el Gabinete de Presupuestos y Plan de Gestión, adscribiendo los puestos con códigos 071051, 071138, 072110 y 072119 (las dotaciones correspondientes) al Servicio de Presupuestos y Control Económico de la Dirección de Administración Educativa, debiendo procederse a la adaptación del contenido funcional de las monografías de dichos puestos.

*Segundo.*– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de mayo de 1995.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**2189**

AGINDUA, 1995eko maiatzaren 12koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Unibertsitate eta Ikerketa Sailordetzan, goi karguaren idazkari baten 072001 kodea eta 18ko maila dituen postua izendapen librearen sistemaz betetzeko den deialdiari erabaki bat emateko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) atalean eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen librearen sistemaz betetzeko deialdi publikoa iragartzeko den Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1995eko martxoaren 13ko Aginduaren (martxoaren 27ko EHAA) laugarren oinarri-arauean xedatutakoarekin bat eginik, hau

XEDATU DUT:

*Lehenengoa.*– Eguzkiñe Satrustegui Uribe andrea, goi-karguaren idazkari, 072001 kodea, 18ko mailaizendatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailordetzan.

*Bigarrena.*– Jabetza hartzen den unetik aurrera emango ditu ekonomi eta administrazio ondorioak izendapen horrek.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**2189**

ORDEN de 12 de mayo de 1995, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto Secretaria de Alto Cargo, código 072001, nivel 18, en la Viceconsejería de Universidades e Investigación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en la Base Cuarta de la Orden de 13 de marzo de 1995 (B.O.P.V. de 27 de marzo) del Consejero de Educación, Universidades e Investigación por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento,

DISPONGO:

*Primero.*– Designar a doña Eguzkiñe Satrustegui Uribe, Secretaria de Alto Cargo, código 072001, nivel 18, en la Viceconsejería de Universidades e Investigación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Segundo.*– Dicho nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos a partir de la toma de posesión.